

Emakumeen elkartasuna, etxeko langileak babesteko

SOS Arrazakeriak eta Tolosaldeko mugimendu feministak erresistentzia kutxa bat sortu dute egoera zaurgarrienean dauden etxeko langileei lagundu ahal izateko //3

Zizurkilgo merkatari, ostalari eta autonomoei laguntzeko

Udalak 50.000 euro bideratuko ditu pandemiak kaltetutakoei laguntzeko; erabateko etetea izan duten negozioek 500 euro arteko laguntzak jaso ditzakete // 4

Gaur irekiko dute Amezketako udal liburutegia

Gimnasioa berriz, astelehenean irekiko dute eta gehienez hiru pertsona egon ahal izango dira batera; astelehenean izango du ohiko ordutegia udal bulegoak // 5



TOLOSA

BERAZUBIRA ITZULI DIRA

Oraingoz Tolosa CF-ko atletak bakarrik erabili ahal izango dute Berazubiko estadioa; atzo arratsaldean hasi ziren bertan entrenatzen. Tolosako Udalak ekainaren 15a inguruan ireki nahi ditu beste kirol instalakuntzak //7

IMANOL GARCIA LANDA

Ekainak
1 → 19

aurre
MATRIKULA

01 ^{3. urteko} OINARRIZKO
LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

*Prestakuntza
lanbidea
etorkiruna*

02 ERDI MAILAKO
ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

03 GOI MAILAKO
ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

☎ 943 55 19 58

✉ idazkaritza@hernanilanh.eus

📍 Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANILHII



www.hernanilanh.eus

HZ HERNANI
LANBIDE
HEZIKETA

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII
CIFP INNOVACIÓN SOCIAL

Herria itxuraldatuz, behar berrietara egokitzen

Alarma egoerak geldiarazitako lanei ekin die berriro Tolosan. Hainbat guneeetan asfaltatze lanak egiten ari dira; horrez gain, bidegorriko zoladura konpondu da.



Bi langile, atzo, Larramendi kaleko 3. zenbakiaren pareko zerbitzu bidea asfaltatzen. J. ARTUTXA

Josu Artutxa Tolosa

COVID-19aren pandemiak eragindako osasun larrialdiak aurreikuspen askotan izan zuen eragina. Horrela, herri lanak edo obrak gelditu egin behar izan ziren zenbait astez, egoerak hobera egin artean, behintzat. Hilabete inguruko isilunearen ondoren, bueltan dira berriro makina eta tresna hotsak.

Dena prest zegoen, alarma egoera ezarri aurretik, Tolosako hainbat tokitan asfaltatze-lanei ekiteko. Baina, lan horiek ere geldiarazi egin behar izan ziren. Duela gutxi, lanak egoera berrira egokitzeari ekin zioten, eta orain, euririk gabeko egunak aprobetxatzen ari da udala, duela zenbait aste hasitako lanei jarraipena emateko.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Garbiketa. Tolosako Garbiketa enpresa batek, gizonetako bat behar du garbiketalaran jarduteko. Ezinbesteko baldintzak: gidabaimena izatea eta esperientzia izatea. Interesadunentz, 943 670 626 telefono zenbakira deitu behar dute.

Azken asteetan, Larramendi kalean hobekuntza lanak egiten ari dira. Duela bi aste hasi ziren Arriaran gasolindegiko ondoko biribilgunetik Arramele zubirainoko asfaltoa hobetzeko lanekin. Pasa den astean eguraldi txarra egin zuenez, aste honetan berrekin die asfaltatze lanei, Larramendi kaleko 3. zenbakiaren parean dagoen zerbitzu bidean, eta dagoeneko amaitu dituzte.

Larramendikoa, ordea, ez da izango eraberrituko duten herriko gunek bakarra. Gaur beste bi gunek asfaltatuko dituzte. Batek, Ferialeku ondoko aparkalekuan ariko dira; bestetik, Monteskue bidean (Argaya baserriko bihurtunean eta Martin Txiki eta Makala baserrien artean).

Fresatzen eta asfaltatze lanak egingo dituzte, eta eguraldiak baldintzatuko du lanen luzapena. Izan ere, ostiralean ere ariko dira, eta euririk egiten ez badu, astelehenean bide-marrak marrotuko dituzte.

SANFRANTZISKO 41

Martxoaren 9an ekin zuten San Frantzisko kaleko 41. zenbakiaren inguruan egin beharreko lanei. Espaloiaren kota igo, zoladura berri, lorategien alboak

kusten zuen udalak. Hala ere, obrak etetea erabaki zuten, Espainiako Gobernuak larrialdi egoera ezarri eta berehala. Dekretuak indarra galtzerako, baina, lanei berriro ekitea aurreikusten zuten, eta apirila amaieran hasi ziren. Honezkerok ia amaituta daude.

BIDEGORRIA ETA ETXEBIZITZAK

Azken aste hauetan, bidegorrien zoladura ere konpondu du udalak, herriko hainbat guneeetan. Hain zuzen, bizikletaz ibiltzeko ezarritako bideak hobetu dira San Frantzisko pasealekuan, Araba etorbidean eta Arramele eta Sam zubietan.

Asfaltatze lanak egin dituzte Larramendi kalean; gaur herriko beste bi gunetan ere egingo dituzte

San Frantzisko pasealekuko lanak ere ia amaitu dituzte; 115.413,17 euroko kostua izan dute

Era berean, udaletik gogorarazi dute etxebizitzetako obra partikularrak debekatuta daudela oraindik, langileen eta bizilagunen arteko harremana saihesteko eta pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.



San Frantzisko pasealekuko 41. zenbakiaren inguruko eremua, eraberrituta. J.A.

Design Thinking metodologiak gehiago ikasteko aukera

TOLOSALDEA // Lehiberrik Tolosaldeko enpresei eskaintzen dien doako kudeaketa eskolaren barruan, *online* formazioen bigarren saioa egingo dute, ekainaren 4an eta 5ean, 09:00etan hasita. Lanketa praktikoko baten bidez, Design Thinking metodologia ikasi eta ideiak sortzeko tresna landuko da bi orduko bi saiotan, Let's Go! Team elkarte-ko Cayetana Arriekin. Saiotetan parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea, lehiberri@tolosaldea.eus helbidera idatziz edo 943 65 45 01 zenbakira deituz.

PSE-EE-ren egoitzan posta bidezko botoa emateko laguntza

TOLOSA // Uztailaren 12rako atzeratutako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako, posta bidezko botoaren izapideak egiteko laguntza zerbitzua eskainiko du, Tolosako PSE-EE-k, Herriko Etxean (Rondilla Kalea, 33). Uztailaren 2a bitarte dago aukera, astelehenetik ostiralera (11:00-13:00 eta 17:00-19:00). Etxetik bozkatzeko aukera duten ezinduek edo gaixoei, egoitzan ere egin dezakete.

Tolosako Udaleko Ohiko Osoko Bilkura, gaur arratsaldean

TOLOSA // Udalak Ohiko Osoko Bilkura egingo du, 19:30ean, modu telematikoan. Udalaren Youtubeko kanalean edo www.tolosa.eus webgunean jarraitu ahal izango da. Herritarrek, gainera, galde-erreguetan parte hartzeko aukera izango dute. Horretarako, aldeztu aurretik gobernantza@tolosa.eus helbidera bidali beharko dituzte.

Ahokotasunaz eta hezkuntzaz aritzeko ikastaroa

AMASA-VILLABONA // Ahokotasuna eta ahoko kultur sorkuntzaren didaktika ikastaroa eskainiko du Mintzolak uztailaren 9 eta 10ean, EHUKo Uda Ikastaroetan antolatutako eskolaren barruan. Donostiako Miramar jauregian jarraitu ahal izango da 77 euroren truke edo *online* 65 euro ordainduta. Izen ematea zabalik dago jada.

Erresistentzia kutxa sortu dute, etxeko langileei laguntzeko

SOS Arrazakeriak eta Tolosaldeko mugimendu feministak diru bilketa bat egin nahi dute egoera zaurgarrienean dauden etxeko emakume langileei laguntza ekonomikoa emateko

Irati Saizar Artola

SOS Arrazakeriak bultzatuta eta Tolosaldeko mugimendu feministak lagunduta erresistentzia kutxa bat antolatu dute, osasun larrialdiak eraginda egoera zaurgarrian geratu diren etxeko langileei laguntzeko. Langile horietako asko emakumeak, atzerritarak eta kontratu zein paperik gabekoak dira. Oarsoaldean ekimen bera jarri zuten martxan, eta egun Tolosaldera ekarri dute.

Konfinamendua hasi ostetik, SOS Arrazakeria elkarteak etxeko langileen jarraipena egin du: orokorrean 250 emakumerekin jarri da harremanetan, eta horietatik 40 egoera larrian daudela azaldu du Ana Telleria Tolosaldea Garatzeneko Migrazio saileko teknikariak. SOS Arrazakeriak elkarteak Tolosaldeko etxeko langileen talde bat sortuta dauka, eta hortik ere eskualdeko emakumeei jarraipena egin zaie.

Lanpostua galdu dute askok, edota lanaldia eten zaie beste batzuei. Hala ere, oinarritzko gastuak, etxebizitza zein elikagaientzako berdin-berdin ordaintzen jarraitu behar dute, biziraun nahi badute. Gainera, Telleriak dio geroz eta egoera larriagoan aurkitzen direla: «Egunez egun bizi dira emakume hauek; haien herrialdeetatik ekarritako aurrezkiak amaitzen ari zaizkie eta ez daukate gehiago ezer».

Emakume horietako gehienak egoera irregularrean daude, hau da, «ezin dute gobernuko diru laguntzarik jaso». Izan ere, «diru laguntzak jasotzeko baldintza batzuk bete behar izaten dira, eta horietako bat alokairuko kontratua izatea da; askok ez daukate kontraturik, beraz laguntza gabe geratzen dira». Denborak aurrera egin ahala, egoera zailtzen ari zaie. «Elikagai bankuetatik jasotzen ari dira janaria batzuk, baina alokairua ezin ordainduz daude; eta lana galdu dutenez oso zaila daukate orain lana aurkitzea, ezkutuko ekonomian lan egiten baitute».

Egoera «oso larria» dela dio Maite Aranalde Ibarrako Dea-

bruak Kalera Asanblada Feministako kideak. «Konfinamendu aurretik ere ez zen egoera batere erraza etxeko langileena, bada, orain, asko okertu da».

ELKARTASUNEZ

Ekimenarekin bat egin dute Tolosaldeko mugimendu feministako kideek. Hasiera batean, Ibarrako Deabruak Kalera Asanbladako kideak elkartu ziren

Crowdfoundinga martxan jarri dute eta taberna eta dendetan itsulapikoak egongo dira

gaiaren inguruan buelta bat emateko, eta zerbait egin beharrean ikusi zuten haien burua, «bai emakume haiei ekonomiko ki laguntzeko, baina baita gaiaren inguruan hitz egin eta sentibilizatzeko ere». Hori horrela, Ibarrakoez gain, eskualdeko hainbat mugimendu eta kolektibo ere batu dira ekimenara: Villabonako Lurgatz, Anoetako Matraka, Altzoko Mariren alabak, Irurako Mugimendu Feminista, eta Divinas, Ereite eta Jatorrin elkarteak.

Emakume horiei lagundu ahal izateko crowdfundinga jarri dute martxan honako helbidean: www.gofundme.com/f/tolosalde-erresistentziakutxa. Bestalde, eskualdeko hainbat denda eta tabernetan itsulapikoak ere jarri dituzte, bakoitzak bere ekarpena egiteko. Edo bestela, transferentzia bat egin daiteke Kutxaban-keko kontu honetara: ES16 2095 5013 70 9114122235. Ondoren, bildutako diru hori SOS Arrazakeriak elkarteak kudeatuko du.

«Ekimen hau larrialdi egoera bati erantzuteko da, baina argi dago kolektibo horri laguntzeko pausoak eman eta haien egoera hobetzeko aldarrikatzen jarraitu behar dugula», gogorarazi du Aranaldek. «Badakigu honekin ez direla behar guztiak aseko, baina lehen pauso bat da bizi-tzak eta pertsonak erdigunean jarriko dituen sistema bat eraikitze bidean».



Kaleetan eta establezimenduetan kartelak itsatsi dituzte kanpainaren berri emateko. ATARIA

«Ezin dut alokairua ordaindu eta janaria erosteko ere ez daukat dirurik»

**LAURA
ETXEKO ZAINZAILEA**

I.S.A. Tolosa

Osasun krisiagatik lanik gabe geratu da Laura –ez da bere benetako izena–. Tolosan bizi da egun, alokatutako logela batean, eta diru sarrerarik ez duenez, jateko eta alokairua ordaintzeko arazoa ditu. Egoerak zer ekarriko dion beldur da.

Zein da zure egungo egoera?

Ordu batzuk egiten nituen lan etxe batean, eta osasun krisia etorri denean lan hori galdu dut.

Mugikorrera deitzen zidaten nire beharra zutenetan, baina ez zen lan finkoa, izan ere, ez dut paperik eta horrela lana bilatzea ere oso zaila da.

Diru sarrerarik ez duzu momentu honetan, beraz.

Ezin dut alokatuta dudana logela ere ordaindu. Eta janaria erosteko ere ez daukat dirurik, ezta mugikorra diruz kargatzeko ere. Egoera latza bizitzen ari naiz. Udaletxera joan behar izan nuen laguntza eske, eta gizarte langileek laguntza eskaini zidaten. Logelaren erdia ordaintzen lagundu didate, baina beste erdia ordaindu gabe daukat oraindik, izan ere, 250 euro ordaindu behar izaten ditut ura eta argia barne.

Lana aurkitzeko zailtasunak gehitu egin dira egunotan?

Askok okertu da egoera. Adineko asko hil da koronabirusagatik eta beldurtuta daude. Baldintza zorrotzagoak eskatzen dituzte

gainera. Arratsaldeetan kalera ateraz ibili naiz, jendeari galde-tuz ea lana lortzen ote nuen. Baina ez dut zortetik izan, ez dago lanik. Bizirauteko ordea zerbait behar dugu.

Elikagai bankura joan ohi zara?

Bai, duela hamabost egun haiek eman zidaten jatekoa. Baina asteartean pasa nintzen berriro eta itxita dago, hurrengo abisura arte. Ez dakit nola moldatuko naizen hurrengo hilabetea pasatzeko. Ez dut izango jatekorik, eta egoera oraindik eta larriagoa izango da.

Kanpaina honekin egoera hobetzen joango den esperantza duzu?

Espero dut baietz. Pentsatu nahi dut ekonomikoki gu baino hobeto dagoen jende zintzoa badagoe la mundu honetan eta lagunduko gaituztela. Gutxienez, oinarritzko elikagaiak erosteko adina izan dezagun behintzat.



MINUTU BATEKO ISILUNEA

Tolosako udaletxearen aurrean minutu bateko isilunea egin zuten atzo 12:00etan. «Euskadiko udalek jasotako gonbidapenarekin bat eginez, COVID-19 pandemiagatik hildako pertsona guztien oroimenez» egin zuten elkarretaratzea Tolosako Udalaren atarian. Udaletxeko banderak ere haga erdian jarri zituzten. Tolosaldeko beste zenbait udalek ere bat egin zuten dolua adierazteko ekimenarekin. J.M.

Kilometroak 2020 abestia bihar aurkeztuko dute

Erredakzioa

Amasa-Villabona / Zizurkil

Kilometroak proiektua bizi-bizirik dago eta Zubimusu ikastolako komunitatea gogotsu dabil lanean. Ekimenaren antolatzaileek esan dutenez, «Pauxak hegala ahalik eta gehien zabal ditzan eta geure pilota ahalik eta urrutien jaurtitzeko aukera izan dezagun». Kilometroak proiektua osatzen duten taldeek etxetik lanean segitzen dute, etenaldirik egon ez dadin.

«Denok dakigu Kilometroak proiektuan abestiak eta bideoklipak garrantzia handia dutela, eta horregatik, aurkezpen ekitaldi berezi bat egiten dela horiek plazaratzeko. Aurten, aurkezpen hori apirilaren amaieran egiteko asmoa genuen, baina, bizi dugun egoerak hala bultzatuta, ezin izan dugu halakorik egin», aipatu dute ekimenaren antolaketatik.

Bideoklipa oraindik ez dute prest, baina abestia bukatuta dute, eta Kilometroak proiektua bizirik dagoen adierazgarri,

abestia plazaratzea erabaki dute. Abestiaren doinua Xabi Zubeldia irakasleak egin du eta hitzei dagokienez, Amaia Agirre Amasa-Villabonako bertsolariak jarri dizkio hitzak abestiari.

AURKEZPEN KALEZ KALE

Abestiaren aurkezpen ekitaldia *online* izango da, eta zuzenean emango dute bihar, hilak 29. 12:00etan aurkezpen bideoa zabalduko dute eta 12:15ean abestia entzun ahal izango da lehenengo aldiz, hurrengo plataforma hauetan: Facebook, Instagram, Twitter, Youtube, Soundcloud eta kilometroak.eus webgunean.

Larunbatean, berriz, abestia herritarrei aurkeztuko asmoa agertu dute ikastolako ordezkariak, 12:00etatik aurrera. Amasa-Villabonan eta Zizurkilen barrena ibiliko da autoz Pauxa abestia plazaratzen, herritar guztiek abestiaz gozatzeko aukera izan dezaten, baina, beti ere, segurtasun neurriak errespetatuz eta autoaren inguruan jenderik pilatu gabe.

Herritarren Arretarako Bulegoan zabalik izango da

AMASA-VILLABONA // Atzotik, aurrez aurreko arreta emango da bulegoan. Bertara sartu aurretik derrigorrezkoa izango da eskuak garbitzea sarrerako ate ondoan egongo den alkoholdu xaboia erabiliz. Gehienez bi pertsona sartu ahal izango dira bulegora aldi berean. Beteta dagoen bitartean, gerturatu nahi duten herritarrek udaletxeko kanpoaldean itxaron beharko dute, lurrean ezarriko diren marraz erabiliz, bi metroko segurtasun distantzia gordez. Orain arte, hitzordua eskatuta aritu dira lanean.

Francori ohorezko alkate izendapena kendu diote

ALKIZA // 1949 abuztuaren 21ean eginiko osoko bilkura batean garai hartako udal batzak aho batez erabaki zuen Francisco Franco herriko ohorezko alkate izendatzea, Gipuzkoako gobernadore zibilak eginiko iruzkin bati men eginez. «Diktadura frankistak jazarri zituen alkizarrei zor genien keinua da —adierazi du Inaki Irazabalbetitia alkateak—; sinbolikoki indartsua da 2019 udal hauteskunde en lehen urtebetetze egunean hartu izana erabakia».

Diru laguntzak merkatari eta ostalarientzat

Zizurkilgo Udalak diru laguntza deialdia egin du herriko merkatari, ostalari eta enpresari txikientzat, krisian laguntzeko

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo udaletik aurrez azaldu izan duten bezala, aurtengo aurrekontuak COVID-19aren pandemiak eragindako kalteak leuntzea bideratuko da. Hilabeteotan, udal ordezkariak nabarmendu dutenez, «gizarte zerbitzuak indartu, garbiketa areagotu, osasun eta segurtasun neurrietan inbertitu eta herria bizirik mantentzeko ezinbestekoak diren merkatari, ostalari eta enpresari txikiak laguntzera bideratu da udalaren ahalegina».

50.000 EUROKO PARTIDA

Alarma egoerak «kalte handiak» eragin ditu Zizurkilgo merkatari, ostalari eta autonomo ugariengan. Udalak euren egoera arintzeko diru laguntzak partituko ditu eta horien helburua «kalte horiek leundu eta aktibitate itzulera erraztea da». Erabateko etetea izan duten negozioen kasuan 500 euro arteko laguntzak emango da hileko eta etete partziala izan dutenen kasuan 300 euro artekoa. Onuradun bakoitzak, gehienez, 1.300 euroko diru laguntza jaso ahal izango du.

Diru laguntzak eskatzeko epea Gipuzkoako agerkarian dekretua publikatu eta 10 eguneko izango da. Dekretuan zehazten da aurkeztu beharreko dokumentazioa. Besteak beste, nego-

zio edo aktibitateak Zizurkilen egon beharko du eta eskatzaileak frogatu beharko du pandemiak eraginda galera izan duela. www.zizurkil.eus atarian kontsultatu daiteke testua bere osotasunean. Udalak 50.000 euroko diru partida jarriko du laguntza horietarako. Udal ordezkariak aipatu dutenez, «kontuan hartzeko zifra da, udal aurrekontuen murrizketa oso gordina izango den urtean».

Aurrez, apirilean, Zizurkilgo Udalak jada iragarri zuen aurtengo IBI edo OHZ zerga itzuli egingo zela kalteetako negozioei, ekonomia jarduera zerga ez zela kobratuko eta udal eraikinen kasuan negozioak itxita egon ziren epeko alokairurik ez zela kobratuko.

Zizurkilgo udal ordezkariak nabarmendu dutenez, orain iragarritako diru laguntzak neurri horiek osatzera datoz. Herritarrei deia ere egiten diete, egoera honetan inoiz baino gehiago, herrian kontsumi dezaten.

Zizurkilgo Udala elkarlanean ari da krisiari erantzuten, martxotik eratua dago krisi mahaia eta alderdi guztien adostasunarekin ari da neurriak hartzen pandemiaren aurrean. Egoera honetan batera lan egitearen garrantzia azpimarratu dute udalaren ordezkariak duten alderdi guztiek, EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEk.



EH Bildu, EAJ eta PSE-EEko udal ordezkariak udaletxe atarian. ATARIA

Herritarren kexak direla eta, txakur jabeei oharra udaletik

Amezketako Udala zakur jabe edo zaintzaileengana zuzendu da dituzten betebeharrak gogoraraziz

E. Maiz Amezketak

Amezketako Udalak herritarren-gandik jaso dituen kexak direla eta, beste ohar bat atera behar izan du txakur jabe edo hauen zaintzaileei zuzenduz.

Lehenik eta behin, erabilera arrunteko espazio publiko eta pribatuetan, animaliak uhal sendo baten bidez paseatu behar direla adierazi du. Horrez gain, gorroziak oinezkoak ibiltzen diren edozein lekutan uztea galarazita dagoela gogorarazi die. Era berean, animaliek muturrekoa izango dute aurrekariak, izaerak, ezaugarriak edo egoerak hala gomendatzen duenean.

Bestetik, jabeek kontrolatu beharko dituzte txakurrak, pertsonen eta gainerako animaliei eragozpenik edo kalterik ez sortzeko, eta ondasun edo instalazio publikoak ez hondatzeko. Beraz, txakurra begi-bistan eduki beharko dute. Azkenik, debekatuta dute animaliak haurren aisialdi-guneetara sartzeko eta erabilerara publikoko txorrotetatik zuzenean ura edatea.

Amezketan begiraleak behar dituzte uztaileko udalekuetarako

E. Maiz Amezketak

Amezketako Udalak aurrera egingo du urteroko udako udaleku irekiekin. Amezketako Gaztelekuak begiraleak beharko ditu udaleku irekiak aurrera eramateko, eta lan horretan interesa dutenek izena eman beharko dute ekainaren 5a, ostirala, baino lehen. Curriculum *gazte-ria@amezketa.eus* helbide elektronikora bidaltzeko eskatu dute.

Nola antolatuko dituzten aurkezteko egoerak eskatzen dituen araudien zain daudela adierazi dute. Hala ere, uztailaren 6tik 30era izango direla argitu dute.



Kultur etxean dagoen gimnasioko ateak, berriz, astelehenean irekiko dituzte bazkideentzat. Bi makina kendu dituzte distantziak bete ahal izateko. E. MAIZ

Gaur irekiko ditu ateak Amezketako udal liburutegiak

Udalak udaletxeko zerbitzuak ireki ditu, eta horrez gain liburutegia irekiko du, eta astelehenetik aurrera baita gimnasioa ere; higiene neurriak bete beharko dira

Eneritz Maiz Etxarri Amezketak

Gipuzkoa astelehenetik bigarren fasean sartu dela eta, fasea erregulatzen duen araudiak zenbait udal zerbitzu zabaltzeko aukera ematen die udalei. Amezketako udal arduradunek horretarako «nahia eta borondatea» agertu dute, eta zehazki, udaletxea, liburutegia eta gimnasioa irekiko dituzte. Nahiz eta egoera berezia izan, udal zerbitzu horiek herritarren eskura jarriko dituzte, «baldintza bereziekin».

Martxoan itxi eta gero, udal liburutegiak gaur irekiko ditu ateak berriro. Ohiko ordutegia izango du bai liburuen mailegu zerbitzua emateko eta baita liburutegian bertan egoteko ere, haurrentzako eremuan izan ezik. Ikasketa gela bezala erabiltzeko zerbitzua ere martxan jarriko da. Hala ere, udaletik herritarrek ohartarazi nahi dituzte: «Liburutegiaren barruan lekua okupazioaren herena bakarrik baimentzen da».

Erabiltzaileek betebeharreko puntuak daude. Hau da, nahitaezkoa izango da behin kultur

etxera sartuta maskara jarrita eramatea. Horrez gain, eskuak liburutegian egongo den gelarekin garbitu beharko dira, eta azkenik, kultur etxe guztian distantziak gorde beharko direla azpimarratu dute.

KIROLA EGITEKO GUNEA ERE BAI

Gimnasia sartzeko irrikaz dauden amezketarrek astelehenera arte itxaron beharko dute. Ekainaren lehen gimnasioa bazkideei zabalduko zaie. Ohiko ordutegia izango badu ere, kasu honetan ere, erabilpen baldintza berriak bete beharko dituzte bazkideek.

Bigarren fase honetako araudiak kirol instalazioen okupazioa herenean baimentzen duela gogorarazi du Amezketako Udalak, beraz, «gehienez hiru pertsona egon daitezke batera gimnasioaren barruan».

Gainera, bi makina erretiratu dituzte, erabiltzaileek mantendu beharreko distantziak errespetatu ahal izateko.

Kirol saioa hastean, eskuak bertan egongo den gelarekin garbitu beharko dira. Behin saioa amaitu, eta atera aurretik, erabi-

litako makina guztiak garbitu egin beharko ditu erabiltzaileak: «Bertan egongo den desinfektatzailearekin erabiltako makina bakoitzeko euskarri eta esku-bandak pasa beharko dira».

Gimnasioaren kasuan ez dute erabilerarako denbora mugarik ezarri, eta ez dela zehaztasunean okupazioa begiratu argitu badute ere udaletik, «erabiltzaile bakoitzari erantzukizuna eta ardura eskatzen zaio».

UDALETXEKO ZERBITZUAK

Astelehenetik udaletxea eta bertan ematen diren bi zerbitzu nagusiek, hau da, udal bulego nagusiak eta udal gizarte zerbitzuek, ohiko ordutegia berreskuratu dute. Herritarrek bertara hurbildu ahal izango dira.

Higiene neurriak betetzeko bi itxaroteko gela egokitu ditu udalak, bata bulego nagusirako sarreran, eta bestea gizarte zerbitzuetarako –igogailuaren ondoan–. Aulkiak distantziak gordetzeko moduan jarri dituzte, eta derrigorrezkoa izango da, udaletxeak herritarrekin hitz

egiteko garaian higiene neurriak betetzea.

Hasteko, maskara jarrita sartu beharko da udaletxera. Jarraian, itxaron geletan egongo diren geletan garbitu beharko dira eskuak. Eta gogoan izan beharko da udaletxe guztian, hau da, itxaron geletan eta bulegoetan distantziak gordeko beharko direla.

Nahiz eta herritarrei ateak zabaldu, udalak telefonoz eta modu telematikoa herritarrek artatzeko aukera emango duela kontuan izatea nahi dute, eta «modu eraginkor, arin eta errazak direla kanal hauek udal izaipide asko egiteko».

IGOGAILUA, BEHARRA DENEAN

Bukatzeko, herritarrei azken ohar bat jakinarazi die udalak. «bai udaletxean, bai kultur etxean ere, ahal dela, eskailera erabili beharko da, eta igogailuaren erabilera ezinbesteko gutxienez mugatu beharko da», argitu dute. Pertsona bat sartu ahalko da aldi bakoitzeko, salbu laguntza behar duten pertsonen kasuan.

Bertakoa jatearen garrantziaz, bideo laburren bidez

Pandemiaren eraginez gertuko ekoizleen elikagaien kontsumoak inoiz baino indar gehiago hartu duen honetan, «ekimen xume bat» abiarazi nahi izan du Tolomendik

Erredakzioa Tolosa

Tolomendi landa garapenerako agentziak, Jan Tolosaldea ekimenaren barruan, proposamen bat luzatu nahi izan die eskualdeko herritarrei. Bertakoa kontsumitzearen garrantziaz ohartarazteko, gehienez minutu erdiko iraupena izango duten bideoak grabatzeko deia egin du. «Ekimen xumea da, baina balio dezala orain arteko jokamolde batzuk aldatzen laguntzeko», esan dute Tolomenditik.

Ekimenak «jendartea sentsibilizatzen» laguntzea nahi dute, eta horregatik grabatutako bideoak #jantolosaldea traola erabilita eta Tolomendi aipatuta sare sozialetan zabaltzea eskatu dute. Sare sozialik ez dutenek *tolomendi@tolomendi.eus* helbidera bidali ditzakete lanak, eta Tolomendik berak zabalduko ditu.

JAN TOLOSALDEAREN BALOREAK

Izan ere, pandemiak «gure elikadura eta kontsumo praktiketan ere eragin zuzena izan du», esan dute. «Inoiz baino indar handiagoa hartu du gure inguruneke ekoizleek ekoiztutako elikagaien kontsumoak, gertuko kontsumo praktikak, herritar, eragile zein entitate ezberdinen arteko sare-tzeak», gehitu dute.



Jan Tolosaldea ekimenaren barruan egin dute proposamena. J.A.D.

Horiek dira hain justu, Tolomendik duela urte batzuk abiarazi zuen Jan Tolosaldearen helburuak, eta hain zuzen, orain, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, inoiz baino ageriago geratu da bertakoa kontsumitzearen garrantzia. «Herri-ondasunen balioa, ekoizteko, kontsumitze eta antolatzeke ekimen ezberdinak, aktibatu dira eskualdean osasun krisi honetan». Hala, eskualdeko ekoizleen elikagaiak eskuratzeko eta hornikuntza bermatzeko ekimenak, komertzio txikian kontsumitzeke herritarren sortu duen praktikarekin batera, bertakoa- ren aldeko hautua eta kontzientzia hartzea bateratu, eta indartu dira. Eta horren guztiaren isla,

gehienez minutu erdiko bideoen bidez adierazteko deia luzatu du Tolomendik.

TOKIKOA, IRAUNKORRA ETA OSASUNGARRIA

Egungo egoera honek eskualdeko tokiko elikagaietan oinarritutako elikadura sistemak, bertako ekonomia, ingurumena eta gizartearen garapenean duen inpaktu positiboaz ohartu gaituela dio agentziak eta horixe dela Jan Tolosaldea. «Tokikoa, iraunkorra eta osasungarria egitasmoaren balio eta helburuak bistaratu eta indartu ere egin dira». «Honexegatik, eskualdean abian jarri diren ekimenak baloreen jarri eta bistaratu nahiko genituzke herritarrekin batera».

GUTUNA

Bizirik eta etxean nahi ditugu

Otsailean nork esan behar zigun, bi hilabete-ko konfinamendu egoera bat bizitzea tokatuko zitzaigula. Hilabete hauek gure buruetan iltzaturik geratu dira: etxetik ia ezin atera, gertukoak ukitu ezinik pantaila baten bitartez ikusi behar izatea, ilarak supermerkatuetan, berriz ere ikusiko ez ditugun lagunak...

Aste honetan deseskaladaren bigarren fasean sartu gara. Egoerak larria izaten jarraitzen duen arren, ezin da uka, zentzu batzuetan bederen, hobetu dela: kalera ateratzeko, mendira joateko aukerak handitu zaizkigu, berriz ere inporta zaizkigun pertsonak zuzenean ikusteko aukera izan dugu...

Baina badira 2. fasean egon arren, konfinamendu egoera batean harrapatuta geratu direnak. Estatu espainiarreko eta frantse- seko espetxeetan sakabanaturik dauden euskal herritarrak. Bi hilabetez bisitarik gabe egon ondoren, oraindik bisitarik gabe jarraituko dutenak, sakabanaketa- ren eta ezarri den mugimendu murrizketen ondorioz.

Azken hilabeteak gogorrak izan badira guretzat, pentsa zer den zelda txiki batean igarotzea, bisitarik gabe, lagun eta senide-

engandik kezkatuak, herritik isolatuak, haien osasunagatik beldurtuak, instituzioengatik ahaztuak.

Esperientzia honek, borondate sendoena ere duen pertsona, momentu jakin batean etsipene- ra, amildegira eraman dezake. Egoera ez da samurra izan ino- rentzat.

Covid-19aren istorio guzti honek berriz ere agerian utzi digu, euskal preso politikoei ezartzen zaien salbuespen legediaren krudelkeria eta honekin amaitzeko dugun premia. Iraganari erantzuten dion espetxe politika honek indarrean jarraitzen duen bitartean Antxo, Patxi edota Julenen kasuak, bisitara doazen senide eta lagunak istripuak errepikatzen jarraituko dira.

Behin eta berriz mahaigainera- ratu da, herri honek gatazka ar- matuaren fasea itxi eta gatazka- ren ondorioen konponbidean urratsak emateko duen beharra. Eta hori, biktima guztien, baina baita ere preso guztien etxera- tzetik igarotzen da. Gu guztion esku dago iragana atzean uztea.

Norabide horretan, aurreko ostiralean aurkeztu zen Izan Bi- dea dinamika eta maiatzeko Az- ken Ostiralak indartzea duten garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Alhoa Karrera eta Iñigo Otazua, Oti
Tolosaldeko Sortu

Elkarretaratze ibiltaria, bihar, Trianguloatik

TOLOSA // Euskal presoen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo dute berriz ere. 20:00etan Trianguloatik abiatuta elkarreta- ratze ibiltaria egingo dute, ilaran eta 2 metroko distantzia errespetatuz. Banderolak eta maskarak eraman behar dira.

Azken ostiralak Lizartzan eta Berastegin

IBARRALDEA // Lizartzan eta Berastegiko plazetatik abiatuta euskal presoen aldeko elkarreta- ratze ibiltariak egingo dituzte. Berastegin 19:00etan abiatuko dira eta Lizartzan 20:00etan. Maskarak eta banderolak era- mateko eskatu dute.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Tolosa CF-ko atletak hasi dira Berazubín entrenatzen

Tolosako Udalak baimena eman dio klubari estadioan entrenamenduak egiteko; oraingoz Tolosa CF-ko atletak bakarrik erabili ahal izango dute

Imanol García Landa Tolosa

Tolosa CF-ko atletismo saileko kirolariak atzo arratsaldean hasi ziren Berazubiko estadioan entrenatzen. Txandaka ariko dira, eta txanda bakoitzean 20 pertsona sartu ahal izango dira, atletak eta entrenatzaileak kontuan hartuta. Tolosako Udalak ebazpen bidez eman dio Tolosa CF-ri estadioko pistak erabiltzeko baimena, Kirolzer enpresaren adostasunarekin, azken hau baita herriko kirol azpiegituren zerbitzuaz arduratzen duena. Baimenak Kirolzer enpresak azpiegiturak zabaldu bitarte iraungo du.

Maiatzaren 8an bidali zuten Berazubi estadioa erabiltzeko eskaria Tolosa CF-ko atletismo sailekoek udalera, eta bertan zehazten zituzten erabiliko zituzten babes neurriak. Lander Gil atletismo saileko zuzendaritzako kideak eta entrenatzaileak azaldu duenez, «atletek beraien entrenamenduak modu egokian aurrera eramateko aukera dute orain, asfaltoan entrenatzeak lesioak sortzea ekarri dezakeelako».

Asteburuan sare sozialetatik Berazubi irekitzeko eskaria egin zuten atletismo sailetik. «Bere momentuan eskaria egin genuenean, espero genuen erantzun azkar bat izatea, gaia aztertzen ari zirela esanez», esan du Gilek. «Gerora Tolosako Udalarekin eta Tolosa CF-ko zuzendaritzarekin hitz egitean, erantzuna emanda zegoela esan ziguten. Gaizki ulertua edo komunikazio falta izan dela ondorioztatu dugu, eta atzo [asteartea] egon ginen harremanetan protokoloa-eta zehazteko. Azkenean ikusi da bai udaletik, bai Tolosa CF-tik eta bai atletismo sailetik prestasun eta komunikazio ona dagoenean, dena toki onera iristen dela». Lortutako baimenarekin «oso gustura» daudela azaldu du Gilek, eta Tolosako Udalar eskertu dio beraien eskaria kontuan hartu izana. Sare sozialetatik zabalduak «aldarrikapen» moduan ulertu behar direla gai-



Tolosa CF-ko atletak atzo arratsaldean Berazubín entrenatzen. I.G.L.

neratu du: «Ikusten genuen beharrezkoa zela Berazubín entrenatzea, lesioak ekiditeko, eta aldarrikapenak ez ditugu egin inor kaltetzeko asmoz».

Bere aldetik, Joxe Mari Villanueva Tolosako Udaleko Kirol zinegotziak azaldu duenez, «udaletik aspaldidanik ari gara prestatzen, batez ere Kirolzer enpresarekin, koronabirusa delata eta sortutako egoerari erantzunak emateko». Tolosa CF-ko atletismo sailetik jasotako eskaerari erantzuna eman ziotela zehaztu du Villanuevak. «Komentatu genuen gure interesa dela kirol azpiegiturak lehenbailehen irekitzearena. Kontua da legeek esandakoaren arabera joan gaitzkeela pausoak ematen. Alarma egoeran gaude, gauza oso serioa da, eta ezin dira egun batetik bestera zabaldu azpiegiturak, legegaren eskakizunak oso zorrotzak direlako. Eusko Jaurlaritzak igandean eman zuen baimena kirol azpiegiturak irekitzeko».

Udalaren partetik ez dela «komunikazio faltarik» izan esan du Villanuevak: «Tolosa CF-ko lau pertsona ezberdinekin hitz egin dugu gure asmoak azalduz, eta zinegotzi batekin ere, eta beraien artean ez dute informazioa pasa. Beraiek ikusiko dute zergatik

nahi izan duten Facebooketik mezuak zabaldu, nirekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera izanda».

Beste kirol azpiegiturak irekitzen joateko asmoa dute udaletik. Ekainaren 15aren inguruan zabalteko lanean ari direla azaldu du Villanuevak. Aste honetan beste kirol taldeekin hitz egiteko asmoa azaldu du, egoeraren berri emateko. Bestalde, Kirolzer enpresatik aplikazio bat martxan jartzen ari direla zehaztu du, kirol azpiegiturretan sartu daitekeen jende kopuruaren kontrola emateko.

TXAPELKETEI BEGIRA

Berazubi estadioko pistak oraingoz Tolosa CF-ko atleta federatuek bakarrik erabili ahal izango dituzte. Ordutegia 16:30etik 20:45era bitartekoa izango da, astelehenetik ostiralera, bi egunak barne. Talde txikitik entrenatuko dute, eta talde bakoitza estadioko zona batean ariko da. Kirolarien artean bi metroko distantzia mantenduko dute gutxienez, eta erabiltzen duten materiala desinfektatu egingo dute. Bestalde, klubak pertsona bat jarriko du atezain lanetan, instalazioa ireki eta ixteko, eta txanden aldaketa zaintzeko.

Denboraldiari begira, Espainiako Federaziotik azaldu dienez, gazte mailetak Espainiako Txapelketak antolatzen saiatuko dira urrian. Horrez gain, Nafarroako Federazioak egutegia atara du lehiaketekin. «Espero dugu Gipuzkoako Federazioak ere egutegiren bat osatuko duela», esan du Gilek. «Herri lasterketako antolatzaileak hasi dira klubei jakinarazten iraila-urria ondoren hasiko direla lasterketa batzuk izaten». Txapelketa eta proba horiei begira Berazubín entrenatzen hastea «garrantzitsua» zela esan du Gilek. «Denboraldia abendua bitarte da eta denbora badago berriz sasoian jarri eta emaitza politak lortzeko».

JOSE LUIS GONZALEZ, TXAPELDUN

Alarma egoera ezarri aurretik, Tolosa CF-ko Jose Luis Gonzalez San Sebastian Txilis atletak M-70 mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen disko jaurtiketan. Kilo bateko diskoa 30,85 metro-tara bota zuen. Jabalina jaurtiketan bigarren izan zen, 31,46 metroko jaurtiketarekin. «Emaitza aparta, beraz, berriz ere gure jaurtiketa luzeetako eredu den atletaren aldetik», azaldu dute klubetik.

Belabieta taldekoen ikasturtea, amaitzear

Erredakzioa Ibarra

Aste honetan bukatzen dira Belabieta Kirol Elkarteko entrenatzaileek gimnastei bidaltzen zizkien erronkak, eta horregatik, erronka berezi batekin bukatuko dute. Bestalde, Internet bidezko saioak ekainaren 12an bukatuko dira, ikasturte amaierako jaialdia izatea pentsatuta zegoen egunean, egoera berezi honen-egatik ez baita ospatuko.

Horrez gain, datorren ikasturterako izena emateko epea ireki dute. Mezu bat bidali daiteke belabieta_ke@yahoo.es helbidera, edo kontaktuan jarri 657 719 533 zenbakiarekin *whatsapp* edo dei bidez. Momentuko neurrien arabera osasun eta garbiketa neurri bereziak hartuko dira datorren ikasturterako, gimnasta eta entrenatzaileak babesteko.

TAKeko zozketaren hiru saridun falta dira

Erredakzioa

Tolosaldeko Arraun Klubeko zozketaren hiru zenbaki saridunen jaberren berri oraindik ez dutela azaldu dute. Apirilaren 17an egin zuten zozketa, eta ondorengo hiru zenbaki hauen jabeak falta dira agertzeko: 3494, 9757 eta 3447. Txartelak aurkezteko epea ekainaren 19a dela azaldu dute klubetik. Zenbaki saridunak dituztenek 688 82 75 16 zenbakira deituz edo taktolosa@gmail.com helbidera idatziz jarri daitezke harremanetan.

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

Datorren denboraldiari begira

GOGOTSU LANEAN



OSTEGUNA, 2020KO MAIATZAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Ekainaren 2tik aurrera bisitatu ahal izango da Topic zentroa

Txotxongiloen etxera gerturatzeko hitzordua hartu beharko da eta segurtasun arauak errespetatu; besteak beste, Taiwanetik ekarritako txotxongiloak ikusi ahalko dira

Erredakzioa Tolosa

Tolosako txotxongiloen etxeak, Topic-ek, datorren asteartean, ekainak 2, irekiko duela iragarri du. Konfinamendua dela eta, azken asteetan itxita egon da, nahiz eta sare sozialen eta webgunearen bidez, haur eta gazteei zuzendutako ekintzak egin dituen, eta aldizkako erakusketa birtualki bisitatzeko aukera eskaini duen.

Datorren astetik aurrera, ordea, herritarrek bertatik bertara ezagutu ahal izango dute Topic eta bertan dauden txotxongiloak ikusi. Lanegunetan 15:30etik 19:00etara bisitatu ahal izango da eta asteburu zein jaiegunetan 10:30etik 14:00etara, eta 15:30etik 19:00etara.

Bisita egiteko neurri batzuk hartu behar direla esan du, hala ere, Topic-ek; pertsonen arteko segurtasun tartea utzi beharko da, ezingo dira txotxongiloak edo bestelako elementuak ukitu, eta maskara erabili beharko da. Era berean, ezingo da igogailua erabili, guztiz beharrezkoa ez bada behintzat. Bisitak ordubetekoak izango dira eta museoko



Taiwanetik ekarritako txotxongiloak ikusi ahal izango dira. ATARIA

gida batekin egingo dira. Hitzordua aurrez egin beharko da 943 65 04 14 telefono zenbakira deituta edo cit@cittolosa.com helbidera idatzita.

Asteartetik aurrera hortaz, besteak beste, Taiwango txotxongiloen erakusketa berria

ezagutzeko aukera egongo da. Uhartetik kanpo dagoen handiena da eta era guztietako 180 txotxongiloz osatua dago. Txotxongilo bilduma zabal horretan Taiyuango (Taipei) Txotxongiloen Antzokiko Asiako Museoko jatorrizko piezak ikusi ahal dira ere.

OSTEGUNA 28

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Ohiko osoko bilkura telematikoa 19:30ean. Zuzenean eskainiko dute webgunean eta Youtube-ko udaleko kanalean. Herritarrek gobernantza@tolosa.eus - rabadali ditzaizkete galderak edo adierazpenak.
Bedaio. Harri Eguna; 11:00etan meza, ondoren hamaiketako Artubiren eskutik eta 12:00etan Haritz Mujika eta Mikel Artola bertsolariak.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguraldia, eskualdeko berriak, egunari begirada eta elkarizketa (Ramon San Sebastian Gehituko lehendakaria).
11:00-12:00. Eutsi Goiari. Kirola.
14:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Mestibull. Musika.

28 KANALA

OSTEGUNA

11:00. Kirola etxean
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Spinning klasea
OSTIRALA
11:00. Osoa sukaldean
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Amets yoga estudioa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

AMASA-VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez. Kale Berria, 3. Telefono zenbakia: 943 69 11 30.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. Telefono zenbakia: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua eta beroa. Goizean goizetik zeru urdina nagusituko zaigu eta eguzkiak gogotik berotzeko aukera izango du. Arratsaldean zehar bero-hodeiren bat edo beste garatuko da baina ez du ekaitzetarako joerarik izango. Haizeak ekialde/hego-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoa nabarmen igoko da, eguneko erdiko orduetan 29-30 graduan joaz goia.

Gaur. Antzeko giroa. Hego-haizeak bero handi samarra ekarriko digu. Egun osoan zehar zerua ia erabat urdin mantenduko da eta horrekin eguzkiak bere lana egingo du. Arratsalde partean bero-hodeiren bate edo beste izango dugu, baina garrantzirik gabekoak. Termometroak balio altuetan ibiliko dira, maximoa 28-30 graduan errendituz.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



1 TXINDOKIKO ITZALA

Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera

www.txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



harpidedun izateak badu saria zozketa

2 EKAINBERRI museoa:

Kobazuloak + esperientziak

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

www.ekainberri.com
ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA

ZENTRUA

Masajea

609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.